

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ALEGRÍA-DULANTZIKO UDALA

2025eko jarduera ekonomikoen gaineko zerga kobratzea

Nik, Joseba Koldo Garitagoitia Odriak, Dulantziko (Araba) alkate naizen honek,

Jakinarazten dut: 2025eko urriaren 15etik abenduaren 15era bitarteko egun baliodunetan, biak barne, borondatezko epean kobratuko dira 2025eko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagozkion ordainagiriak.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea: 2025eko urriaren 15etik abenduaren 15era.

Premiamendu aldia, ehuneko 5eko errekaruarekin, 2025eko abenduaren 16tik aurrera; egun horretatik aurrera premiamenduko betearazte bide administratiboa hasiko da, hala xedatzen baitu indarrean dagoen Dirubilletaren Araudi Orokorrak.

Ordaintzeko lekua eta modua: Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideratzearen banku kontua berbera bada. Udala arduratuko da ordainketa iza-pidetzeaz. Ordainagiriak 2025eko abenduaren 1ean kobratuko dira.

Helbideratu gabeko ordainketak.

Ordainketa bankuan helbideratuta ez dutenek borondatezko aldian egin ahal izango dute, etxean jasoko duten kobrantza abisuan agertzen diren banku bulegoetara joanda.

Alegría-Dulantzi, 2025eko ekainaren 4a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA